

B euskararen BERRIPAPERA

Helduen euskalduntzea eta alfabetatzea urritik urrira

Kultura Sailak 1996. urtean hainbat hitzarmen sustatu ditu euskalategi pribatuekin nahiz publikoekin. Hitzarmen horien bitartez, euskalategien sarea taxuz homologatu eta neurritu nahi izan da; asmo hori agertu baitzuten, Kultura sailburuak eta Hizkuntza Politikarako sailburuordeak Legebiltzarrean izandako agerraldian.

Euskalategiak

Euskalategi pribatuak eta publikoak, guztira, 163 dira. Bi sareok elkarren osagarri dira. Hori horrela, euskalategi guztion emaitzak eta baliabideak aztertu nahi izan ditu HABEK eta, horretaz gain, lan horren fruitua hobetzeko eta eskuarteak ahal den ongien erabiltzeko modua egin. Izan ere, helduen euskalduntzeak eta alfabetatzeak ezin ukatzeko ahalmena baitu euskara indartzeko bidean. Batzuen eta besteen ahaleginak eta indarrak ildo bereetik eraman beharraz jabetuta, bi eratako batzordeak antolatu dira.

Batzordeak

- Lan-batzordea deritzonak, 1996ko uztailan eratu zenak, bi egiteko nagusi ditu:

- Euskarako irakaslearen heziketa profila zedarritzea: duena eta baita izan beharko lukeena ere.

- Epe ertainerako heziketa politikaren ildo nagusiak proposatzea; alegia, aipatutako heziketa profiletik abiatuta, irakasleen oinarritzko zein etengabeko eguneratzea ahalbidetzeko, arloak, edukiak eta baliabideak zedarritzea.

Eginkizun horien harian, errealitatearen azterketarako diagnosi tresnak sortu ditu batzordeak dagoeneko. Horietatik ateratako datuak ari dira prozesatzen euskalategi sare guztietan elkarlanean.

- Gainerako batzordeak bitarikoak dira, hau da, HABEren eta euskalategi sare bakoitzaren artekoak. Horietan, orain arte lortutako emaitzak aztertuko dira eta proposamen berriak egingo dira.

Nolanahi ere, horiek denak urratsak dira euskalategien mapa osatu ahal izateko, legealdi hau amaitu baino lehen osatu nahi dena, hain zuzen.

Zenbaki batzuk


Kopurutara ekarriz, 95-96 ikasturtean, Euskal Autonomi Elkartean, 48.307 ikasle heldu aritu dira euskalduntze eta

SUMARIOA	
1	Helduen euskalduntzea eta alfabetatzea urritik urrira
2	Laburrak Arantxa Tapia Otaegi eta Julian Florez Esnal Kontuan hartzeko
3	Europako ikertzaileak Euskal Herrian Euskaraokea
4	Izen-abizenez Lehen begiratuan Expolangues: euskara Parisen

alfabetatzeko ikastaroetan, euskalategien sare pribatuan nahiz publikoan.

Ondoko taulan ikus daitezke ikasleok euskalategi sareka banatuta:

IKASLE KOPURUA 95-96 IKASTURTEAN



✕ Euskalategiei dagokienez, berriz, udal-euskalategiek 40 ikastetxe zituzten 95-96 ikasturtean. BERTAN taldearen inguruan 15 euskalategi biltzen ziren, AEKk 18 euskalategi homologatu eta 66 libre izan ditu. IKA kultur elkarteak, ostera, 3 euskalategi homologatu eta libre bat izan du. Eta, azkenik, inoren jabetzapeko ez diren euskalategi pribatu eta homologatuak 20 dira guztira.

LABURRAK

AIZU! 15 urte

Abenduan bete dira hamabost urte AIZU! aldizkariaren lehen zenbakia kalera ateratzen.

Aldaketak ugariak izan dira ibilaldi luze honetan, disenuari dagozkionak, batez ere; baina aldizkariaren xedea ez da inoiz aldatu. AIZU! euskara ikasten ari diren lagunei irakurgai ulerterrazak eskaintzeko borondateaz sortu zen, eta horretan dihardu gaur egun ere. Horretarako, hainbat ataletan banaturik, era guztietako gaiak jorratzen ditu; hala nola, antzerkia, zinema, musika, literatura, ekologia, sukaldaritza, bidaiak, hizkuntza, etab. Urtebetetze hau ospatzeko, AIZU!-k Dostaizu! jolas bilduma eta Aizu, Paddy!

ipuin liburua kaleratu ditu.

Dostaizu! AIZU! aldizkariaren gehigarri moduan eta atalka kaleratu diren jokoek osatzen dute, beti ere, eguneratuta, zuzenduta eta galdera, erantzun eta hitz gehiagorekin.

Aizu, Paddy! liburua,

berri, hermeretzi ipuinek osatzen dute. Istorioari zuzenean lotutako zuri-beltzeko argazki bat dagokio, gainera, ipuin bakoitzari.

Andoaingo Udala euskararen alde

Andoaingo Udalak Euskara indarrean jarriko dugu... zuk indar egiten badiguzu! lelotzat duen kanpaina jarri du martxan. Besteak beste, Udalarekin harremanak euskaraz nahi dituzten herritarren errolda egitea da helburua. Euskaraz hitz egiten dakiten herritar guztiei egin zaie kanpaina parte hartzeko eskaintza.

Euskara badakitela aitortu duten hemezortzi urtetik gorako herritar guztiei (5.500dik gora) ekimenaren berri ematen duen liburuskatua banatu zaie, euskaldunon txartelarekin batera. Txartel hori Udalarekin harremanak euskaraz eduki nahi dituztenek sinatu eta Euskara Zerbitzura bidali behar dute.

Errolda izango da Udalak burutu asmo duen Euskararen Erabileraren Normalkuntzarako Planaren oinarririk sendoena. Zenbat eta herritar gehiago izan Udalarekin harremanak euskaraz nahi dituztenak, orduan eta zehatzagoa izango da Udalak hilabete gutxi barru egingo duen euskara erabiltzeko plana.

Arantxa Tapia Otaegi eta Julian Florez Esnal

Injineruen Elkargoak, euskararen alde egindako lana aitortzeko asmoz, sari bat banatu du urtero bezala elkargokideen artean. Aurten, Arantxa Tapia eta Julian Florez senar-emazteei egokitu zaie eta joan den azaroan jaso zuten saria. Astigarragan jaio zen Arantxa Tapia orain dela 33 urte eta Julian, berri, Zumaian orain dela 38 urte.

Industri Injineruak biak, Donostiako Goi Mailako Industri Injineruen Eskolan (Nafarroako Unibertsitatea) burutu zituzten ikasketak. Euskararen aldeko lan nekaezinean, karrera bukaerako proiektuak eta tesiak euskaraz izan daitezten ahalegintzen dira, bidean aurkitzen dituzten hizkuntz zailtasun eta traba guztiak gainditzen saiatuz. Aurrekoaz gain, elkarlanean edo bakarrik, Euskal Herriko hainbat aldizkari euskaldunetan argitaratu dituzte artikulu batzuk.



Erregulazio Automatikoa izeneko liburua eman zuten argitara 1995.ean Elhuyar Kultur Elkartearen eskutik. Arantxak 1992. urtean burutu zuen bere tesia, euskaraz, Donostiako Goi Mailako Industri Injineruen Eskolan. Donostiako Injinerutza Teknikoan Automatika eta Kontrolleko katedraduna da eta egun Automatika eta Kontrolleko eskolak ematen ditu euskaraz. Julianek, bere aldetik, 1985.

urtean burutu zuen bere tesia UMIST-en (University of Manchester Institute of Science and Technology) eta egun, Donostiako Goi Mailako Industri Injineruen Eskolan irakasle eta Elektrizitate, Elektronika eta Automatikako Saileko burua da. Erregulazio Automatikoko klaseak ematen ditu euskaraz, eta CEIT ikerketa zentroan ikertzaile da. 1995. urtean Heaviside saria jaso zuen.

KONTUAN HARTZEKO

Espainiako Estatuko hizkuntza politikak

Urtarrilaren 29tik otsailaren 2ra Parisen egingo den *Expolangues* azokarekin batera, Espainiako Estatuko hizkuntza politikak gaitzat izango duen mahaingurua egingo da Sorbonako Unibertsitateko Centre d'Études Catalanes-en. Ekitaldia urtarrilaren 30ean, arratsaldeko 19.00etan izango da.

Euskal Herriko II. Inkesta Soziolinguistikoa

Aurreko ekitaldiaz gain, eta Expolangues-ekin batera hau ere, Euskal Herriko II. Inkesta Soziolinguistikoaen aurkezpena egingo da Parisen, rue Duban 10ean kokatutako Euskal Etxean. Ekitaldia otsailaren 1ean izango da arratsaldeko 18.00etan.

★ **Ahoz aho, belaunez belaun ... hil honetan non?**

Urtarrilaren 13tik 26ra, Bermeon

Urtarrilaren 27tik otsailaren 9ra, Lasarten



Europako ikertzaileak Euskal Herrian

Europako Batzordeak, Hizkuntza Gutxiengotuen Europako Bulegoaren (EBLUL) lankidetzaz, ikerketa bisiten programa antolatzen du 1983. urteaz geroztik.

Programa honen arabera, ikasturte oro ikerketa bisitak antolatzen dira hizkuntza gutxiengotuak dituzten komunitateetara. Ikasturte honetan, beste komunitate batzuen artean, Euskal Herriari egokitu zaio txanda. Otsailaren 2tik 7ra bitartean burutuko da bisita eta administrazioa eta euskara izango du gaitzat. Bisitariak Gasteizen, Eusko Jaurlaritzaren egoitzan bertan, Hizkuntza Politikarako sailburuorde den Josune Ariztondoren eta gainontzeko arduradunen eskutik Euskal Herriari eta euskarari buruzko ikuspegi orokorra izateko aukera izango dute. Horrez gain, hezkuntza sistemaren berri emango diete Hezkuntzako ordezkariak.

Helduen euskalduntze eta alfabetatzea, euskal komunikabideak, unibertsitatea, euskararen corpusa, eta bestelako hainbat gai ere jorratuko dituzte, HABEren egoitzara, *Euskal Irrati Telebistaren* eta *Euskaldunon Egunkariaren* egoitzetara, Euskal Herriko Unibertsitatera eta abarretara egingo dituzten bisitetan. Gure artean izango diren 12 bisitari Europako hainbat komunitatetatik etorriko dira, besteak beste, Irlandako komunitate gaelikotik, Suediako komunitate finlandiarretik, Belgikako eta Italiako komunitate germaniarretatik eta Korsikatik. Bisitari hauek hizkuntza gutxiengotuen inguruko lanetan adituak dira: kazetariak, irakasleak, iker-tzaileak, etab.

EUSKARAOKEA

Ixiar Orejak eta Iñaki Urdampilletak ETBren lehen katean aurkeztutako *Euskaraokea* saioak arrakasta handia du gure gazteen artean. Uda ondoren hasita, Euskal Herriko hainbat herritan izan da umekin abesteko. Orain arte, 720 umek hartu du parte, *Iñaki, zein urrun dagoen Kamerun, Salda bero beroa, Arratsalde honetan, Nirekin* eta beste hainbat abestiri letra jarritz.

Aurrekoak eta beste abesti batzuk bilduz bi disko trinko kaleratu dira *Euskaraokea* saioa dela eta. Beraz, Zarama taldea, Bittor Aiape eta beste hainbat kantariren lanak entzuteko aukera izango dugu. Horrez gain, Ixiar Oreja aurkezleak abestutako



X Ixiar eta Iñaki ekitaldietako batean haurrez inguratuta.

Euskaraokea abestia ere entzun daiteke disko horietan. Herriz herriko ibilaldia jarraituz,

urtarrilaren 9an Irunen izango dira eta hilaren 16an Astigarragan.

Alfonso Irigoien

Alfonso Irigoien Etxebarria idazle eta euskaltzaina abenduaren 16an hil zen, 67 urte zituela. Euskal kulturako pertsona ezagun ugarik eman zion azken agurra Lekeition azken-azkeneraino langile nekazina izan zenari.

Alfonso Irigoien Bilbon sortu zen 1929ko azaroan. Filologia Erromanikoko ikasketak egin zituen Salamancan, eta pintura eta eskultura landu zituen gaztetan. Hala eta guztiz ere, beste lan eta zeregin batzuei eskaini zien arreta, denbora eta indarra, euskaltzetasunak bultzatuta, batik bat.

Oso gazterik hasi zen Alfonso Irigoien Euskaltzaindiko idazkariorde lanetan, eta 1956tik aurrera Euskaltzaindiaren *Euskera* aldizkaria berreraiki eta indartu zuen. 1963az goerotik izan da euskaltzain oso.

Irigoienek Filologiaren arloan egindako ikerlanen artean, toponimiaren ingurukoak dira oparoenak. Besteak beste, *Sobre el topónimo Gasteiz y su entorno antroponímico* eman zuen argitara 1981ean; *Las lenguas de los vizcaínos: Antroponimia y toponimia medievales* 1985ean; urte berean kaleratu zuen *En torno a la evolución*



y desarrollo del sistema verbal vasco.

1994an, Deustuko Unibertsitatearen eskutik, *Pertsona-izenak euskaraz nola eman (eta exotoponymiaz eranskin bat)* argitaratu zuen.

Liburuez gain, artikulu ugari ere eman zuen argitara Alfonso Irigoienek, *Anaitasuna, Egan* eta *Euskera* aldizkarietan nagusiki eta baita *Euskaldunon Egunkarian* ere azken urteotan.

Poesia ere landu zuen Irigoienek, lau poema liburu nagusi utzi dituelarik. 1970az goerotik Deustuko Unibertsitateko Euskal Filologiako irakasle katedradun zen. Euskaltzain gisa lan egin eta ikerlan eta liburuak idatzi eta argitaratzeaz gain, gizartean ere lan asko egindako pertsona eramane digu gure artean 1996. urteak.

EXPOLANGUES: euskara Parisen

Aurten ere, azken hamabi urteetan bezala, EXPOLANGUES nazioarteko azoka egingo da Parisen urtarrilaren 29tik otsailaren 2ra bitartean. Hizkuntza eta kulturei eskainitako azoka hau bere esparruan munduan egiten direnen artean garrantzitsuenetariko bat da. La Villette-ko La Grande Halle-n bilduko diren standen artean euskarak izango du bere txokoa. Aurreko ekitaldietan bezala, Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernua elkarrekin arituko dira txoko hori prestatzen.

Euskararen standera hurbiltzen den edonork izango du euskararen inguruko materiala ikusi eta informazioa izateko aukera eta baita azken nobedadeei begiradaxo bat botatzekoa ere. Azokarekin batera, beste hainbat ekintza izango dira Parisen euskararen inguruan. Batetik, Sorbonako Unibertsitatean, Espainiako Estatuko hizkuntza politikez eztabaidatuko dute bilduko diren adituek. Josune Ariztondok, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordeak, hartuko du parte Nafarroa, Galizia eta Kataluniako ordezkariekin batera. Bestalde, Euskal Herriko II. Inkesta Soziolinguistikoaren aurkezpena egingo da, otsailaren 1ean Parisko Euskal Etxean. Eusko Jaurlaritzaren, Nafarroako Gobernuaren eta Iparraldeko Euskal Kultur Erakundearen ordezkariak izango dira inkestak eman dituen datuak azaltzeko.

Lehen begiratuan

Hizkuntza Politikarako Sailordetzak liburuska honetan bildu ditu Euskararen Aholku Batzordea eraldatzeko Dekretua, Batzorde Osoko bokalak izendatzeko Dekretua eta Batzorde Osoaren lehengo bileran, 1996ko uztailearen 17ko bileran hain zuzen, Lehendakariak, Kultura sailburuak eta Hizkuntza Politikarako sailburuordeak emandako hitzaldiak. Liburuska eskuratu nahi duenak, Hizkuntza Politikarako Sailordetzara zuzendu behar du bere eskaera.

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailordetza

Wellingtongo Dukea, 2
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskaraz Gaztelaniaz

Izen-deiturak:

.....

Helbidea:

.....

Herria:

Kodea:

Lurraldea:

Tel.:

